



HONDARRIBIKO UDALA



HONDARRIBIKO UDALA

## BANDO/BANDO

Gaur, astelehena, 2020ko maiatzak 11, jauzi handia egingo da COVID-19 pandemiak erabat kolpatu duen gure eguneroko bizitzako normaltasuna berreskuratzeko prozesuan.

Gaur, eta gure lurraldea *Normaltasun berri baterako trantsiziorako plana* delakoaren 1. fasera pasatzean, martxoaren 15etik aurrera alde batera utzi behar izan ditugun jardueretako asko egiteko moduan izango gara, batzuk osotasunean eta beste batzuk neurri handi batean.

Egoera berri horrek esan nahi du baldintza berriak ezarriko direla hainbat jarduera berriz irekitzeko, abian daudenak aldatzeko eta familia zein gizarte mailako ekitaldiak malgutzeko.

Neurri horiek maiatzaren 10eko 8/2020 Dekretuan jasota geratu dira. Lehendakariaren Dekretu horren bidez arauak ezartzen dira alarma-egoera deklaratu ondoren ezarritako murrizketak *Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren* 1. fasean malgutzeko Espainiako Gobernuarekin adostutako aldaketak, zabaltzeak eta murrizketak Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan aplikatzeko, osasun-larrialdiak Euskadin izan duen bilakaerara egokitze aldera. Izan ere, Lehendakariak, bere eskumenen esparruan, Osasun Ministerioaren maiatzaren 9ko SND/399/2020 Agindua, garatu baitu, Arau horiek gaurko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta herenegungo Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dira, hurrenez hurren.

Hoy, lunes, día 11 de mayo de 2020, se producirá un importante salto en el desarrollo del proceso de recuperación de la normalidad en nuestra vida cotidiana, afectada de forma total y absoluta por la pandemia del COVID-19.

Hoy, y con el paso de nuestro territorio a la fase 1 del *Plan para la transición hacia una nueva normalidad*, estaremos en disposición de realizar muchas de las actividades que desde el pasado 15 de marzo habíamos tenido que dejar desatendidas, algunas en su totalidad y otras en gran medida.

Esta nueva situación se corresponde con el establecimiento de nuevas condiciones para la reapertura de distintas actividades, la modificación de aquellas que están abiertas, y para la flexibilización en la realización de actos de contenido familiar y social.

Estas medidas han quedado recogidas en el Decreto 8/2020, de 10 de mayo, por el que se establecen normas para la aplicación, en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de las modificaciones, ampliaciones y restricciones acordadas por el Gobierno español, en relación con la flexibilización de las restricciones establecidas tras la declaración del estado de alarma, en aplicación de la fase 1 del *Plan para la Transición hacia una Nueva Normalidad*, con el fin de adaptarlas a la evolución de la emergencia sanitaria en Euskadi, dictado por el Lehendakari, que, en el marco de sus competencias ha desarrollado la Orden del Ministerio de Sanidad SND/399/2020, de 9 de mayo. Estas Normas han sido publicadas respectivamente en el Boletín Oficial del País Vasco del día de hoy, y en el Boletín Oficial del Estado de anteaer.



Agindu horietan ezarritako neurriak gizarte, ekonomia eta kultura-arloko hainbat jarduera publiko eta pribatutan proiektatzen dira, eta interesa duten guztiek irakurri eta aztertzeko aukera izango dute [www.hondarribia.eus](http://www.hondarribia.eus) gunean.

Normaltasuneranzko jauzi horrek guztiok gogobetetzen gaitu, baina begi-bistakoa da eginkizun ditugula oraindik gauza asko, ekintza asko, jarduera asko, gaingitu gabe geratuko zaizkigun jarrera asko. Zalantzarik gabe, inork ez ditu galdutzat ematen. Ezin ditugu galdutzat eman, eta ez ditugu galdutzat eman behar. Gure izaeraren, gure bizi-aukeraren parte dira, eta, horregatik, pertsona gisa ditugun izaerak ez daude osatuta horiek gabe.

Hausnarketa hau, ordea, ez dator bat alarma-egoeraren eta osasun-larrialdiaren adierazpenen ondorioz finkatutako "Etxealdia deseskalatzeko plana" gauzatzeko hartu diren neurriak abian jarri direnetik ikusi eta egiaztatzen ari garen errealitatearekin,

Behin eta berriz esaten ari naizen arren, guztiz beharrezkoa iruditzen zait, alde batetik, gure bizimoduaren normaltasuna pixkanaka-pixkanaka berreskuratzeko Hondarribiko bizilagun gehienek inplikazioa eta laguntza eskertzen jarraitzea, eta, bestetik, osasun arloko betebeharrak eta gomendioei men egiteko errekerimenduak zentzugabeki jarraitzen ez dituzten haiei jarrera alda dezaten eskatzea.

Jarrera horiek desadostasunagatik edo agintaritzari desafio hutsa izanagatik ez dute zentzurik arauaren aurrean,



Las medidas establecidas por las reseñadas Normas se proyectan sobre diversas actividades de tipo público y privado, de carácter social, económico y cultural, estando la posibilidad de su lectura y examen al alcance de todas las personas interesadas en [www.hondarribia.eus](http://www.hondarribia.eus)

Realmente a todas y todos nos satisface dar este salto hacia la normalidad, pero es evidente que todavía hay muchas cosas, muchos actos, muchas actividades, muchas actitudes que se nos van a quedar pendientes. Sin duda nadie las damos por perdidas. No podemos, ni debemos darlas por perdidas. Forman parte de nuestra forma de ser, de nuestra opción de vida, y por ello nuestras respectivas naturalezas como personas no se encuentran completas sin ellas.

Esta reflexión, no obstante, choca con la realidad de cuanto estamos observando y comprobando en la puesta en práctica por la ciudadanía de las distintas medidas que hasta ahora se han adoptado para materializar el llamado "Plan de desescalada del confinamiento", derivado de las declaraciones del estado de alarma y de emergencia sanitaria.

Considero absolutamente necesario, a expensas de resultar reiterativo, seguir, por una parte, agradeciendo la implicación y colaboración de la gran mayoría de los vecinos de Hondarribia en el correcto desarrollo de la paulatina recuperación de la normalidad de nuestras vidas; y por otra parte, también reclamando y exigiendo a quienes, increíblemente, continúan desafiando de forma irrazonable todo requerimiento de seguimiento de las obligaciones y recomendaciones de carácter sanitario, que recapaciten y reconsideren su actitud..

Carecen de sentido estos posicionamientos frente a la norma, por disconformidad o por



HONDARRIBIKO UDALA

Aipatutako jarrerak nahitaez konbentzitu eta kontzientziatu behar dira, ezartzen ari dena nahitaez bete beharreko araua baita, ezin baita bestela izan, prozesu baten jarraipenari baitagokio. Prozesu horren helburu bakarra gure gizartearen garapena modu globalean alor guztietan (familiar, gizartean, ekonomian, kulturean...) aldatzeko gai izan den gaixotasun bat desagerraraztea da.

Horregatik guztiagatik, goza dezagun, baina izan gaitezen arduratsu. Gure osasuna eta gure senide, lagun, lankide eta bizilagunena babesteko neurri guztiak har ditzagun.

Uste dut dagoeneko ez dugula esan behar “hemendik aterako gara”, ateratzen ari garelako, baina ez gara amaierara iritsi, bide luzea dago egiteko, eta gizartearen akats izugarria litzateke, behar baino lehenago erlaxatu garelako, orain arte izan ditugun mugetara berriz ere bueltatu behar izatea.

Hondarribian, 2020ko maiatzaren 11n



HONDARRIBIKO UDALA

mero desafío a su autoridad.

Tales posicionamientos deben necesariamente reconvertirse en un propio convencimiento y concienciación en que lo que se está estableciendo, dándole el carácter de norma de obligado cumplimiento porque no puede ser de otra manera, se corresponde con el seguimiento de un proceso, cuyo único objetivo lo constituye el conseguir erradicar una enfermedad, que ha sido capaz de alterar de forma global el desarrollo de nuestra sociedad, en todos los aspectos, familiar, social, económico, cultural, etc.

Por todo ello, disfrutemos, pero seamos responsables. No nos descuidemos en la adopción de todas las medidas destinadas a proteger nuestra salud y la de nuestros familiares, amigos, compañeros y convecinos.

Creo que ya no debemos afirmar que “saldremos de ésta”, porque estamos saliendo, pero no hemos llegado al final, queda mucho camino por recorrer, y sería un tremendo error social que, simplemente por habernos relajado antes de tiempo, nos volvamos a ver ante las limitaciones que hemos padecido.

En Hondarribia, a 11 de mayo de 2020

**ALKATEA**

**Txomin Sagarzazu Ancisar**